

Lan Arloko Prozeduraren Legea
Ley de Procedimiento Laboral

LAN ARLOKO PROZEDURAREN LEGEA



LEY DE PROCEDIMIENTO LABORAL

LEY DE PROCEDIMIENTO LABORAL

LAN ARLOKO PROZEDURAREN LEGEA

GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Magistratua

UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea

AITOR BONGOETXEA ALKORTA

UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea

IRENE ALDASORO KATARAIN

PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN

Itzultzaileak

ANTTON ELOSEGI ALDASORO

UPV/EHUko Euskara Juridikoko irakaslea

Zuzenbideko Euskararen Mintegiko arduraduna

JUAN GARZIA GARMENDIA

UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

JOSÉ ANGEL TAMAYO ERRAZQUIN

UPV/EHUko Zuzenbide Erromatarreko irakaslea

Argitalpenaren koordinatzailea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

ISBN: 84-8373-894-5

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 3.339-06

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Prólogo. Joseba Azkarraga Rodero	16
Langileen eskubideak bermatzeko prozedura	23
Ley de Procedimiento laboral	25
Libro I. Parte general	30
Título I. Del ejercicio de la potestad jurisdiccional	30
Capítulo I. De la jurisdicción	30
Capítulo II. De la competencia	34
Capítulo III. De los conflictos de competencia y de las cuestiones de competencia	42
Capítulo IV. De la abstención y de la recusación	44
Título II. De las partes procesales	48
Capítulo I. De la capacidad y legitimación procesal	48
Capítulo II. De la representación y defensa procesales	50
Capítulo III. De la intervención y llamada a juicio del Fondo de Garantía Salarial	54
Capítulo IV. Del beneficio de justicia gratuita	56
Título III. De las acumulaciones	58
Capítulo I. De la acumulación de acciones, autos y recursos	58
<i>Sección 1.^a</i> Acumulación de acciones	58
<i>Sección 2.^a</i> Acumulación de autos	60
<i>Sección 3.^a</i> Acumulación de recursos	60
<i>Sección 4.^a</i> Disposiciones comunes	62
Capítulo II. De la acumulación de ejecuciones	62
Título IV. De los actos procesales	66
Capítulo I. De las actuaciones procesales	66

Hitzaurrea. Joseba Azakarraga Rodero	17
Langileen eskubideak bermatzeko prozedura	23
Lan Arloko Prozeduraren Legea	25
I. liburua. Parte orokorra	31
I. titulua. Jurisdikzio ahala baliatzea	31
I. kapitulua. Jurisdikzioa	31
II. kapitulua. Eskumena	35
III. kapitulua. Eskumen-gatazkak eta eskumen-arazoak	43
IV. kapitulua. Abstentzioa eta errekusazioa	45
II. titulua. Prozesuko alderdiak	49
I. kapitulua. Auzitarako gaitasuna eta legitimazioa	49
II. kapitulua. Auzitarako ordezkartza eta defentsa	51
III. kapitulua. Soldatak Bermatzeko Funtsaren esku-hartzea eta hura epaiketara deitzea	55
IV. kapitulua. Doako justiziaren onura	57
III. titulua. Metatzeak	59
I. kapitulua. Akzioak, jarduketak eta errekurtsioak metatzea	59
1. atala. Akzioak metatzea	59
2. atala. Jarduketak metatzea	61
3. atala. Errekurtsioak metatzea	61
4. atala. Xedapen erkideak	63
II. kapitulua. Exekuzioak metatzea	63
IV. titulua. Egintza prozesalak	67
I. kapitulua. Jarduketa prozesalak	67

Capítulo II.	De las resoluciones y diligencias de ordenación	70
Capítulo III.	De los actos de comunicación	74
Título V.	De la evitación del proceso	82
Capítulo I.	De la conciliación previa	82
Capítulo II.	De la reclamación previa a la vía judicial	86
Título VI.	De los principios del proceso y de los deberes procesales	90
Libro II. Del proceso ordinario y de las modalidades procesales	92
Título I.	Del proceso ordinario	92
Capítulo I.	De los actos preparatorios y medidas precautorias	92
<i>Sección 1.^a</i>	Actos preparatorios	92
<i>Sección 2.^a</i>	Medidas precautorias	94
Capítulo II.	Del proceso ordinario	96
<i>Sección 1.^a</i>	Demanda	96
<i>Sección 2.^a</i>	Conciliación y juicio	98
<i>Sección 3.^a</i>	Pruebas	108
<i>Sección 4.^a</i>	Sentencia	112
Título II.	De las modalidades procesales	114
Capítulo I.	Disposición general	114
Capítulo II.	De los despidos y sanciones	114
<i>Sección 1.^a</i>	Despido disciplinario	114
<i>Sección 2.^a</i>	Proceso de impugnación de sanciones	124
Capítulo III.	De la reclamación al Estado del pago de salarios de tramitación en juicios por despido	126
Capítulo IV.	De la extinción del contrato por causas objetivas y otras causas de extinción	130
<i>Sección 1.^a</i>	Extinción por causas objetivas	130
<i>Sección 2.^a</i>	Despidos colectivos por causas económicas, organizativas, técnicas o de producción	134
Capítulo V.	Vacaciones, materia electoral, clasificaciones profesionales, movilidad geográfica y modificaciones sustanciales de condiciones de trabajo, permisos por lactancia y reducción de jornada por motivos familiares	134
<i>Sección 1.^a</i>	Vacaciones	134
<i>Sección 2.^a</i>	Materia electoral	136
<i>Subsección 1.^a</i>	Impugnación de los laudos	136
<i>Subsección 2.^a</i>	Impugnación de la resolución administrativa que deniegue el registro	140

II. kapitulua.	Ebazpenak eta antolaketa-eginbideak	71
III. kapitulua.	Komunikazio-egintzak	75
V. titulua.	Prozesua saihestea	83
I. kapitulua.	Aurreitiazko adiskidetzea	83
II. kapitulua.	Auzibidera jo aurreko erreklamazioa	87
VI. titulua.	Prozesuaren printzipioak eta betebeharrak	91
II. liburua. Prozesu arrunta eta prozesu aldaerak		93
I. titulua.	Prozesu arrunta	93
I. kapitulua.	Prestamen-egintzak eta prekauzio-neurriak	93
1. atala.	Prestamen-egintzak	93
2. atala.	Prekauzio-neurriak	95
II. kapitulua.	Prozesu arrunta	97
1. atala.	Demanda	97
2. atala.	Adiskidetzea eta epaiketa	99
3. atala.	Frogak	109
4. atala.	Epaia	113
II. titulua.	Prozesu aldaerak	115
I. kapitulua.	Xedapen orokorra	115
II. kapitulua.	Kaleratzeak eta zehapenak	115
1. atala.	Diziplinazko kaleratzea	115
2. atala.	Zehapenak aurkaratzeko prozesua	125
III. kapitulua.	Kaleratzeagatik epaiketetan izapidetze-aldiko soldatak Estatuari erreklamatzea	127
IV. kapitulua.	Arrazoi objektiboengatik kontratua azkentzea eta az- kentzeko beste arrazoi batzuk	131
1. atala.	Arrazoi objektiboengatik kontratua azkentzea	131
2. atala.	Kaleratze kolektiboak, arrazoi ekonomiko, antolamenduz- ko, tekniko edo ekoizpenezkoak direla kausa	135
V. kapitulua.	Oporrak, hauteskunde-gaiak, lanbide-sailkapenak, mu- gigarritasun geografikoa eta lan-baldintzen aldaketa fun- tsezkoak, edoskitze-baimenak eta familia-arrazoiengatik lanaldia murrizteko baimenak	135
1. atala.	Oporrak	135
2. atala.	Hauteskunde-gaiak	137
1. azpiatala.	Laudoak aurkaratzea	137
2. azpiatala.	Erregistratzeari ezezkoa ematen dion administrazio- ebazpena aurkaratzea	141

<i>Sección 3.^a</i> Clasificación profesional	142
<i>Sección 4.^a</i> Movilidad geográfica y modificaciones sustanciales de condiciones de trabajo	142
<i>Sección 5.^a</i> Permisos por lactancia y reducción de jornada por motivos familiares	144
Capítulo VI. De la Seguridad Social	146
Capítulo VII. Del procedimiento de oficio	152
Capítulo VIII. Del proceso de conflictos colectivos	156
Capítulo IX. De la impugnación de convenios colectivos	160
Capítulo X. De la impugnación de los estatutos de los sindicatos o de su modificación	166
<i>Sección 1.^a</i> Impugnación de la resolución administrativa que deniegue el depósito	166
<i>Sección 2.^a</i> Impugnación de los estatutos de los sindicatos	168
Capítulo XI. De la tutela de los derechos de libertad sindical	170
Título III. De la audiencia al demandado rebelde	174
Libro III. De los medios de impugnación	178
Capítulo I. De los recursos contra providencias y autos	178
Capítulo II. Del recurso de suplicación	180
Capítulo III. Del recurso de casación	192
Capítulo IV. Del recurso de casación para la unificación de doctrina	202
Capítulo V. De las disposiciones comunes a los recursos de suplicación y casación	208
Capítulo VI. Del recurso de revisión	214
Libro IV. De la ejecución de las sentencias	216
Título I. De la ejecución definitiva	216
Capítulo I. Disposiciones de carácter general	216
Capítulo II. De la ejecución dineraria	222
<i>Sección 1.^a</i> Normas generales	222
<i>Sección 2.^a</i> El embargo	228
<i>Sección 3.^a</i> Realización de los bienes embargados	232
<i>Sección 4.^a</i> Pago a los acreedores	234
<i>Sección 5.^a</i> Insolvencia empresarial	240
Capítulo III. De la ejecución de las sentencias firmes de despido	242
Capítulo IV. De la ejecución de sentencias frente a entes públicos	248

3. atala.	Lanbide-sailkapena	143
4. atala.	Mugigarritasun geografikoa eta lan-baldintzen aldaketa funtsezkoak	143
5. atala.	Edoskitze-baimenak eta familia-arrazoiengatik lanaldia murrizteko baimenak	145
VI. kapitulua.	Gizarte Segurantzza	147
VII. kapitulua.	Ofiziozko prozedura	153
VIII. kapitulua.	Gatazka kolektiboari buruzko prozesua	157
IX. kapitulua.	Hitzarmen kolektiboak aurkaratzea	161
X. kapitulua.	Sindikatuaren estatutuak edo haien aldaketa aurkaratzea	167
1. atala.	Gordailutzeari ezezkia ematen dion administrazio-ebazpena aurkaratzea	167
2. atala.	Sindikatuaren estatutuak aurkaratzea	169
XI. kapitulua.	Askatasun sindikaleko eskubideen babesa	171
III. titulua.	Auzi ihesean den demandatuari entzuerara ematea	175
III. liburua. Aurkaratzeko bideak		179
I. kapitulua.	Probidentzia eta autoen kontrako errekurtsioak	179
II. kapitulua.	Erregutze-errekurtsioa	181
III. kapitulua.	Kasazio-errekurtsioa	193
IV. kapitulua.	Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsioa	203
V. kapitulua.	Erregutze- eta kasazio-errekurtsioen xedapen erkideak	209
VI. kapitulua.	Berrikuspen-errekurtsioa	215
IV. liburua. Epaien exekuzioa		217
I. titulua.	Behin betiko exekuzioa	217
I. kapitulua.	Xedapen orokorrak	217
II. kapitulua.	Diruzko exekuzioa	223
1. atala.	Arau orokorrak	223
2. atala.	Enbargoa	229
3. atala.	Ondasun enbargatuak diru bihurtzea	233
4. atala.	Hartzekodunei ordaintzea	235
5. atala.	Enpresaburuaren kaudimengabezia	241
III. kapitulua.	Kaleratzeagatik epai irmoen exekuzioa	243
IV. kapitulua.	Ente publikoen aurkako epaien exekuzioa	249

Título II. De la ejecución provisional	250
Capítulo I. De las sentencias condenatorias al pago de cantidades	250
Capítulo II. De las sentencias condenatorias en materia de Seguridad Social	254
Capítulo III. De las sentencias de despido	256
Capítulo IV. De las sentencias condenatorias recaídas en otros procesos	258
Capítulo V. Normas comunes a la ejecución provisional	260
Disposiciones adicionales	260
Disposiciones transitorias	264
Léxico	283

II. titulua.	Behin-behineko exekuzioa	251
I. kapitulua.	Diru kopuruak ordaintzeko kondena ezartzen duten epaiak	251
II. kapitulua.	Gizarte Segurantzaren arloko kondena-epaiak	255
III. kapitulua.	Kaleratzeagatiko epaiak	257
IV. kapitulua.	Beste prozesu batzuetako kondena-epaiak	259
V. kapitulua.	Behin-behineko exekuziorako arau erkideak	261
Xedapen gehigarriak	261
Xedapen iragankorrak	265
Lexikoa	269

Prólogo

Esta tarea que procedo a acometer me resulta especialmente satisfactoria, toda vez que la presente obra da continuidad a la Colección «Leyes», que supone el resultado del Convenio de Colaboración que, en materia de traducción de textos jurídicos, se halla suscrito entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Asimismo, la citada tarea me resulta igualmente satisfactoria por mi condición de Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, ya que esta obra resulta ser el **Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral —Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de Abril [TRLPL]**—, materia inherente a la competencia cuya responsabilidad ejerzo.

En materia de Empleo los conflictos de trabajo son planteados ante los órganos jurisdiccionales del orden social —Juzgados de lo Social, Salas de lo Social de los Tribunales Superiores de Justicia de las Comunidades Autónomas, Sala de lo Social de la Audiencia Nacional y Sala Cuarta de lo Social del Tribunal Supremo— y resueltos por ellos a través de los diferentes procedimientos existentes en la Ley de Procedimiento Laboral. En particular, la concreción de los conflictos de trabajo o de los temas de la rama social del Derecho se lleva a cabo mediante listados de inclusiones y exclusiones, que delimitan la competencia sustantiva o material de la jurisdicción social —artículos 2 y 3 TRLPL.

El proceso laboral constituye un proceso civil especial con respecto del proceso ordinario y común establecido en la Ley de Enjuiciamiento Civil, conforme a las reglas de oralidad previstas en esta norma y con unas connotaciones específicas que fija la Ley de Procedimiento Laboral. Así, el proceso laboral se caracteriza por su agilidad, rapidez, formalismos mínimos y fácil acceso a la prestación jurisdiccional —*principios de inmediatez, oralidad, concentración y celeridad* [artículo 74.1 RRLPL].

Hitzaurrea

Atsegin bereziz ekiten diot hitzaurre honi, argitalpen honek jarraipena ematen baitio «Legeak» sailari, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateak testu juridikoan itzulpenerako sinaturiko lankidetzaz-hitzarmenaren emaitza gisa.

Orobat dut atsegin hitzaurre hau egitea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu naizen aldetik, oraingo ale hau **Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bategina** baita (LAPL), 2/1995 Legegintzako Errege Dekretua, 1995eko apirilaren 7koa, nire ardurapeko eskumenari dagokion gaia hain zuzen ere.

Enpleguaren gaian, lan-gatazkak gizarte-arloko jurisdikzio-organoen aurrean planteatzen dira —gizarte-arloko epaitegiak, autonomia-erkidegoetako justizia-auzitegi nagusietako gizarte-arloko salak, Auzitegi Nazionalako Gizarte Arloko Sala eta Auzitegi Goreneko Laugarren Sala—, eta Lan Arloko Prozeduraren Legean bildutako prozeduren bitartez ebazten dituzte organo horiek. Lan-arloko gatazkak edo zuzenbidearen gizarte-arloko gaiak zerrenda bidez zehazten dira, subjektuaren edo gaiaren arabera gizarte-arloko jurisdikzioak eskumena noiz duen eta noiz ez duen adieraziz —lege honen 2. eta 3. artikulua.

Lan-arloko prozesua prozesu zibil berezia da, Prozedura Zibilaren Legean (PZL) ezarritako arruntaren aldean, eta lege horrek ezartzen dituen ahozkotatasun-erregelaren eta ezaugarri berezi batzuen arabera bideratzen da. Lan-arloko prozesuaren ezaugarri dira arina, lasterra eta formaltasunik gutxienekoa izatea eta jurisdikziora irispide erraza izatea —*arartegabekotasun, ahozkotatasun, konzentrazio eta lastertasun printzipioak* (LAPLren 74.1 artikulua).

Ahora bien, amén de la derivación que se acaba de manifestar, es preciso señalar, asimismo, la conexión expresa que existe entre la Ley de Procedimiento Laboral y la Ley de Enjuiciamiento Civil, ya que, como prevén el artículo 4 de esta última y la Disposición Adicional Primera de aquélla, en lo no previsto por la Ley de Procedimiento Laboral regirá como supletoria la Ley de Enjuiciamiento Civil. Por ello, tras las reformas padecidas por dicha Ley de Enjuiciamiento Civil, la Ley de Procedimiento Laboral se hallaría, asimismo, imperiosamente necesitada de una actualización. En este orden de cosas, habría de tenerse en cuenta que, a fin de que la aplicación supletoria fuere lo más fiel, ajustada y homogénea a las especialidades de la jurisdicción social, las instituciones y procedimientos de la Ley de Enjuiciamiento Civil que hubieren de emplearse habrían de resultar las más próximas a dicha jurisdicción. En este sentido, las normas contempladas para el juicio verbal —artículos 437 a 447, ambos inclusive, LEC— habrían de emplearse con preferencia respecto de las del juicio ordinario —artículos 399 a 446, ambos inclusive, LEC.

La Ley de Procedimiento Laboral es, así pues, la norma específica reguladora del proceso laboral ordinario —propio de las reclamaciones de cantidad [artículos 80 a 101, ambos inclusive, LPL]— y de las distintas modalidades procesales especiales —despidos y sanciones, Seguridad Social, extinción de contratos por otras causas, vacaciones, materia electoral, clasificaciones profesionales, movilidad geográfica, modificaciones sustanciales de condiciones de trabajo, procedimientos de oficio, conflictos colectivos, impugnación de Convenios, impugnación de Estatutos de los Sindicatos y tutela de derechos fundamentales [artículos 102 a 182, ambos inclusive, LPL].

Ello no obstante, es preciso subrayar, nuevamente, la necesidad de entender y aplicar la Ley de Procedimiento Laboral a la luz de las últimas reformas que han acaecido. En especial, habría que señalar la de la Ley Orgánica 8/2003, de 9 de Julio, para la Reforma Concursal —que modifica la Ley Orgánica del Poder Judicial— y la Ley 22/2003, de 9 de Julio, Concursal. Esta última norma rige las situaciones de crisis empresariales, cuyos efectos resultan directos e inmediatos en el empleo, en general, y en los trabajadores, en particular.

En este orden de cosas, la Disposición Final Decimoquinta de la Ley Concursal ha modificado la Ley de Procedimiento Laboral en aspectos sustanciales, cercenando competencias que, desde siempre, han pertenecido al orden jurisdiccional de lo Social y que, con la nueva normativa, pasan a ser competencia del juez del concurso. Más aún, en materia de ejecución de sentencias, expresamente se establece que «en caso de concurso, se estará a lo establecido en la Ley Concursal» —artículo 235.5 LPL.

En suma, una normativa —Ley Concursal— y una jurisdicción —juez del concurso— diferentes, ejerciendo la *vis atractiva* que les es inherente, han asumido competencias del orden social, derivando de todo ello un oscura y prolija

Nolanahi ere, adierazitako berezitasunaz gainera, esan behar da berariazko lotura dutela Lan Arloko Prozeduraren Legeak eta Prozedura Zibilaren Legeak, zeren, azken horren 4. artikulua eta aurrenekoaren lehen xedapen gehigarriak aurreikusten duten bezala, Lan Arloko Prozeduraren Legean aurreikusi gabeko guztian Prozedura Zibilaren Legea izango da ordezaile. Horregatik, Prozedura Zibilaren Legeak izandako erreformen ondotik, eguneratu beharrean legoke, halaber, Lan Arloko Prozeduraren Legea. Horiek horrela, kontuan hartu behar litzateke ezen ordezaile gisako aplikazio hori gizarte-arloko jurisdikzioaren berezitasunei ahalik eta modurik leial, doi eta homogeenotan lotzeko, aplikatu beharreko Prozedura Zibilaren Legearen prozedurak beste jurisdikzioaren ahalik eta hurbilenak izan beharko luketela. Alde horretatik, ahozko epaiketarako aurreikusitako arauak (PZLren 437-447 bitarteko artikulua, biak barne) lehentasunez erabili beharko lirateke epaiketa arruntekoen aldean (PZLren 399-446 bitarteko artikulua, biak barne).

Lan Arloko Prozeduraren Legea dute berariazko araua, beraz, Lan Arloko prozesu arruntek —hori dagokie kopuru-errekamazioei (LAPLren 80-101 artikulua, biak barne)— eta prozesu-aldaera bereziek —kaleratze eta zehapenak, bestelako arrazoiengatik kontratuak azkentzea, oporrak, hauteskunde-gaiak, lanbide-sailkapenak, mugigarritasun geografikoa, lan-baldintzen aldaketa funtsezkoak, ofiziozko prozedurak, gatazka kolektiboak, hitzarmen kolektiboak aurkaratzea, sindikatuen estatutuak aurkaratzea eta oinarrizko eskubideen babesa (LAPLren 102-182 artikulua, biak barne).

Hala ere, azpimarratu beharra dago, berriro ere, gertatu diren azken erreformen argitan ulertu eta aplikatu behar dela Lan Arloko Prozeduraren Legea. Berezi aipatu beharrekoa da 8/2003 Konkurtsoen Erreformatarako Lege Organikoa, 2003ko uztailaren 9koa —Botere Judizialaren Legea aldatzen duena— eta 22/2003 Konkurtso Legea, 2003ko uztailaren 9koa. Azken arau hori aplikatzen da enpresa-krisietan, zuzeneko eta berehalako eragina baitute enpleguan, oro har, eta, zehazki, langileengan.

Horri gagozkiola, Konkurtso Legearen amaierako hamabosgarren xedapenak aldatu egin du Lan Arloko Prozeduraren Legea puntu garrantzitsu batzuetan, moztu egin baitizkio zenbait eskumen, betidanik gizarte-arloko jurisdikzioarenak izan eta arau berriarekin konkurtso-epailearen esku gelditzen direnak. Are gehiago, epai-exekuzioen gaian, berariaz ezartzen da «konkurtsoen kasuan Konkurtso Legeak dioenari jarraituko zaiola» (LAPLren 235.5 artikulua).

Beraz, arau batek —Konkurtso Legea— eta jurisdikzio batek —konkurtso-epailea—, berezkoa duten *vis attractiva* delakoa baliatuz, gizarte-arloko eskumenak berenganatu dituzte, eta horren guztiaren ondorioz eskumen-banake-

distribución competencial —artículo 86.ter 1.2º de la Ley Orgánica 8/2003, de 9 de Julio, para la Reforma Concursal—. Así pues, en base a lo manifestado, la regulación y aplicación de la Ley de Procedimiento Laboral habría de ser tamizada por la normativa Concursal, especialmente en lo que respecta a la competencia de las Salas de lo Social de los Tribunales Superiores de Justicia —artículo 188—; a los supuestos en los que resulta posible el Recurso de Suplicación —artículo 189—; a las normas aplicables a la ejecución social —artículo 235.5—; a la supresión de las ejecuciones separadas —artículo 246.3— y a la aplicación totalmente excepcional de disposiciones procesales de carácter laboral por el juez mercantil, quien, en el ejercicio de su competencia, resuelve sobre «cuestiones litigiosas sociales» —Disposición Adicional Octava.

Finalmente, a modo de conclusión, desearía poner de manifiesto el acierto y la oportunidad de haber llevado a cabo este trabajo, instrumento, sin duda, valioso y necesario para los profesionales del Derecho y, muy en especial, para aquéllos cuya especialidad sea el Derecho Laboral. Simplemente, desearía hacer llegar a todos quienes participan en el citado Convenio entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, mi ánimo y aliento para que prosigan en la labor iniciada, en pos de resultados tan magníficos como la presente publicación.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

ta ilun eta zabal bat sortu da —8/2003 Konkurtso Erreformatarako Lege Organikoaren 86.ter 1.2 artikulua—. Hala, adierazi berri dugunaren arabera, Lan Arloko Prozeduraren Legearen erregulazioa eta aplikazioa konkurtso-legeriaren bitartez iragazi beharko litzateke, batez ere justizia-auzitegi nagusietako gizarte-arloko salen eskumenari dagokionez (188. artikulua), erregutze-errekurtsoa jar daitekeen kasuei dagokionez (189. artikulua), gizarte-arloko exekuzioan aplikatu beharreko arauei dagokionez (235.5 artikulua), exekuzio bananduak kentze-ari dagokionez (246.3 artikulua) eta lan-arloko izaera duten xedapen prozesalak, guztiz salbuespenezko moduan, merkataritza-epaileak aplikatzeari dagokionez, epaile horrek bere eskumenaz baliatuz «gizarte-arloko auzigaiez» ebatziko baitu (zortzigarren xedapen gehigarria).

Azkenik, konklusio moduan, lan hau egin izanaren onura eta egokitasuna azpimarratu nahi nuke, tresna baliotsua eta beharrezkoa baita, dudarik gabe, Zuzenbideko profesionalentzat eta bereziki Lan Zuzenbidekoentzat. Besterik gabe, nire aupada eta arnasa helarazi nahi nieke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmenean partaide diren guztiei, hasitako langintza honetan jarrai dezaten, oraingo argitalpen hau bezalako emaitza bikainak erdiesteko.

Joseba AZKARRAGA RODERO
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua

Langileen eskubideak bermatzeko prozedura

Atsegin handiz aurkezten diogu irakurleari esku artean duen Lan Arloko Prozeduraren Legea, denbora luzez egindako lanaren emaitza.

Lege horretan, prozedura judizialen artean gizarte arlokoek eraman beharreko bidea zehazten da. Jakina den bezala, lan-zuzenbidearen sorrera eta izateko arrazoia langileen gutxieneko eskubideak finkatu beharrean aurkitzen dira. Dena den, eskubide horiek lan-araudian jasota egotea ez da nahikoa errealak eta eraginkorrak izan daitezen; eskubide horiek bermatzeko sistema asmatzea ezinbestekoa da.

Hain zuzen ere, horixe da liburuki honetan aurkezten dugun Lan Arloko Prozeduraren Legearen helburua: gizarte-arloko eskubideak bermatzea babes judizialaren bitartez. Horregatik, ez da egokia, batzuetan egiten den moduan, prozedura gutxiestea, gakoa zuzenbide materialean dagoelakoan. Biak dira beharrezkoak eta osagarriak; zuzenbide materiala, eskubideak sortzeko, eta prozedura, berriz, eskubide horiek bermatzeko.

Gainera, lan-zuzenbide materialak jasan dituen aldaketak eta dinamika ari-na bera bizi du gizarte-arloko prozedurak, eta horrexegatik errealitateari nahiko ondo egokituta dago.

Bestalde, aurkezten dugun legea euskaraz egonik, gogoratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren arabera herritar orok epaileekiko harremanetan euskara erabili ahal izango duela. Beraz, euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriek balio juridiko osoa dute¹.

Tradizionalki euskara eta legeak ez dira hurbileko lagunak izan; hori dela eta, aurkezten dugun lege honek tradizio horrekin apurtzeko beste urrats bat

¹ 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 9. artikulua.

izan nahi du. Nahi genuke erabilgarria izatea gizarte-arloko zuzenbidearekin kontaktua duten euskaldunentzat, eta haien oniritzia litzateke gure lanaren ordain hobereana.

Erabili dugun euskaran, saiatu gara teknika juridikoak eskatzen duen zorrotasuna gordetzen, aldi berean edozein euskaldunentzat ulergarria den euskarara erabiliz. Asmo horretan arrakasta eduki dugun ala ez, irakurle, zuri dago-kizu epaitzea.

Garbiñe Biurrun Mancisidor
Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Magistratua
EHU/UPVko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Irakaslea

Aitor Bengoetxea Alkorta
EHU/UPVko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Irakaslea

LAN ARLOKO PROZEDURAREN LEGEA



LEY DE PROCEDIMIENTO LABORAL

Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral

La Ley 42/1994, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, autorizó al Gobierno en su disposición final sexta para que, en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de la misma, elabore un Texto Refundido del Real Decreto Legislativo 521/1990, de 27 de abril, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley de Procedimiento Laboral, incorporando al mismo las modificaciones introducidas por la propia Ley antes citada, por la Ley 11/1994, de 19 de mayo, por la que se modifican determinados artículos del Estatuto de los Trabajadores, del Texto Articulado de la Ley de Procedimiento Laboral y de la Ley sobre Infracciones y Sanciones de Orden Social; por la Ley 14/1994, de 1 de junio, por la que se regulan las empresas de trabajo temporal, y por la Ley 18/1994, de 30 de junio, por la que se modifica la normativa de elecciones a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones públicas, de la Ley 9/1987, de 12 de junio, modificada por la Ley 7/1990, de 19 de julio.

A tal fin responde el presente Real Decreto Legislativo al que se incorpora, según el mandato recibido, un Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral en el que se recogen las modificaciones que en el apartado anterior se detallan.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Justicia e Interior, previo informe del Consejo General del Poder Judicial, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 31 de marzo de 1995, dispongo:

Artículo único

Se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral que se inserta a continuación

Disposición derogatoria única

Quedan derogados el Texto Articulado de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 521/1990, de 27 de abril; el Capítulo II de la Ley 11/1994, de 19 de mayo, sobre modificación de determinados artículos del Estatuto de los Trabajadores, del Texto Articulado de la Ley de Procedimiento Laboral y de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social; la disposición adicional segunda de la Ley 14/1994, de 1 de junio, por la que se regulan las empresas de trabajo temporal; la disposición adicional úni-

2/1995 Legegintzako Errege Dekretua, 1995eko apirilaren 7koa, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testuategina onesten duena

1994ko abenduaren 30eko 42/1994 Legeak, zeinak neurri fiskal, administratibo eta gizarte-arlokoiei buruz baitihardu, baimena eman zion Gobernuari, amaierako seigarren xedapenean, lege hori indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean testuateginean apaila zezan 521/1990 Legegintzako Errege Dekretua, 1990eko apirilaren 27koa, zeinaren bitartez onesten baita Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu artikulatua. Testuategin horretan hainbat aldaketa jaso behar ziren, lege hauek ekarriak: arestian aipaturiko legea bera; 11/1994 Legea, 1994ko maiatzaren 19koa, zeinak zenbait artikulua aldatzen baitizkie Langileen Estatutuari, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu artikulatuari eta Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenen Legeari; 14/1994 Legea, 1994ko ekainaren 1ekoa, zeinak arautzen baititu aldi baterako laneko enpresak; eta 18/1994 Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa, zeinak aldatzen baitu administrazio publikoaren zerbitzuko enplegatuen ordezkaritza-organoei araudia, 1987ko ekainaren 12ko 9/1987 Legekoa, 1990eko uztailaren 19ko 7/1990 Legeak aldatua.

Xede hori du legegintzako errege-dekretu honek, eta hona bildu da, mandatuak zioena betetz, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testuategin bat, aurreko atalean azaldutako aldaketak jasotzen dituena.

Horrenbestez, Justizia eta Barne ministroaren proposamenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aurrez irizpena emanik, Estatu Kontseiluarekin ados eta Ministroen Kontseiluak 1995eko martxoaren 31n eztabaidatu ondoren, xedatzen dut

Artikulu bakarra

Onesten da honi erantsirik doan Lan Arloko Prozeduraren Legearen testuategina.

Xedapen derogatzailerak

Derogaturik gelditzen dira: Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu artikulatua, apirilaren 27ko 521/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia; II. kapitulua, 1994ko maiatzaren 19ko 11/1994 Legean, zeinak zenbait artikulua aldatzen baitizkie Langileen Estatutuari, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu artikulatuari eta Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenen Legeari; bigarren xedapen gehigarria, 1994ko ekainaren 1eko 14/1994 Legean, zeinak arautzen baititu aldi baterako laneko enpresak; xedapen gehigarri bakarra, 1994ko

ca de la Ley 18/1994, de 30 de junio, por la que se modifica la normativa de elecciones a los órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones públicas de la Ley 9/1987, de 12 de junio, modificada por la Ley 7/1990, de 19 de julio, y el Capítulo V del Título II de la Ley 42/1994, de 30 de diciembre, de Medidas fiscales, administrativas y de orden social.

Disposición final única

El presente Real Decreto Legislativo y el Texto Refundido que aprueba entrarán en vigor el día 1 de mayo de 1995.

ekainaren 30eko 18/1994 Legean, zeinaren bitartez aldatzen baita administrazio publikoen zerbitzuko enplegatuen ordezkartza-organoetarako hauteskundeen araudia, 1990eko uztailaren 19ko 7/1990 Legeak aldatua; eta V. kapitulua, 1994ko abenduaren 30eko 42/1994 Legean, zeinak neurri fiskal, administratibo eta gizarte-arlokoiei buruz baitihardu.

Amaierako xedapen bakarra

Legegintzako errege-dekretu hau eta beronek onesten duen testu bategina 1995eko maiatzaren 1ean sartuko dira indarrean.

ANEXO
TEXTO REFUNDIDO DE LA LEY DE PROCEDIMIENTO LABORAL

LIBRO I

PARTE GENERAL

TÍTULO I

DEL EJERCICIO DE LA POTESTAD JURISDICCIONAL

CAPÍTULO I

De la jurisdicción

Artículo 1

Los órganos jurisdiccionales del orden social conocerán de las pretensiones que se promuevan dentro de la rama social del Derecho en conflictos tanto individuales como colectivos.

Artículo 2

Los órganos jurisdiccionales del orden social conocerán de las cuestiones litigiosas que se promuevan:

a) Entre empresarios y trabajadores como consecuencia del contrato de trabajo, salvo lo dispuesto en la Ley Concursal.

b) En materia de Seguridad Social, incluida la protección por desempleo.

c) En la aplicación de los sistemas de mejoras de la acción protectora de la Seguridad Social incluidos los planes de pensiones y contratos de seguro siempre que su causa derive de un contrato de trabajo o convenio colectivo.

d) Entre los asociados y las Mutualidades, excepto las establecidas por los Colegios Profesionales, en los términos previstos en los artículos 64 y siguientes y en la disposición adicional decimoquinta de la Ley 30/1995, de 8 de noviembre, de Ordenación y Supervisión de los Seguros Privados, así como entre las fundaciones laborales o entre éstas y sus beneficiarios, sobre cumplimiento, existencia o declaración de sus obligaciones específicas y derechos de carácter patrimonial, relacionados con los fines y obligaciones propios de esas entidades.

ERANSKINA
LAN ARLOKO PROZEDURAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA

I. LIBURUA

PARTE OROKORRA

I. TITULUA

JURISDIKZIO AHALA BALIATZEA

I. KAPITULUA

Jurisdikzioa

1. artikulua

Gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura dira Zuzenbidearen gizarte-arloan sorturiko uziak, hala banakoan gatazketan nola gatazka kolektiboetan sortuak.

2. artikulua

Gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura dira era honetako auzigaiak:

- a) Enpresaburu eta langileen artean lan-kontratuaren ondorioz sortuak.
- b) Gizarte Segurantzaren arlokoak, langabezia-babesa barne, Konkurtso Legean xedaturikoa salbu.
- c) Gizarte Segurantzaren babes-jarduna hobetzeko sistemak aplikatzean sortuak, pentsio-planei eta aseguru-kontratuei buruzkoak barne, baldin eta auzia lan-kontratu batetik edo hitzarmen kolektibo batetik eratorria bada.

d) Kideen eta mutualitateen artekoak, profesionalen elkargoek ezarrita-koak izan ezik. Halako auzigaietan, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Gainbegiratzeari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 30/1995 Legeak 64. artikuluan eta hurrengoetan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian dioena aplikatu beharko da. Halaber, lan-fundazioen artean edo haien eta beren onuradunen artean sortuak, obligazio berezien eta ondare-eskubideen bete-tzea, izatea edo deklaratzeko dela eta, erakunde horiei dagozkien xede eta obligazioei loturik.

- e) Contra el Estado cuando le atribuya responsabilidad la legislación laboral.
- f) Contra el Fondo de Garantía Salarial, en los casos en que le atribuya responsabilidad la legislación laboral.
- g) Sobre constitución y reconocimiento de la personalidad jurídica de los sindicatos, impugnación de sus estatutos y su modificación.
- h) En materia de régimen jurídico específico de los sindicatos, tanto legal como estatutario, en lo relativo a su funcionamiento interno y a las relaciones con sus afiliados.
- i) Sobre constitución y reconocimiento de la personalidad jurídica de las asociaciones empresariales en los términos referidos en la disposición derogatoria de la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical, impugnación de sus estatutos y su modificación.
- j) Sobre la responsabilidad de los sindicatos y de las asociaciones empresariales por infracción de normas de la rama social del Derecho.
- k) Sobre tutela de los derechos de libertad sindical.
- l) En procesos de conflictos colectivos.
- m) Sobre impugnación de convenios colectivos.
- n) En procesos sobre materias electorales, incluida la denegación de registro de actas electorales, también cuando se refieran a elecciones a órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones públicas.
- ñ) Entre las sociedades cooperativas de trabajo asociado o anónimas laborales y sus socios trabajadores, por su condición de tales.
- o) Entre los empresarios y trabajadores como consecuencia del contrato de puesta a disposición.
- p) Respecto de cualesquiera otras cuestiones que les sean atribuidas por normas con rango de Ley.

Artículo 3

1. No conocerán los Órganos Jurisdiccionales del Orden Social:

- a) De la tutela de los derechos de libertad sindical y del derecho a huelga relativa a los funcionarios públicos y al personal al que se refiere el artículo 1.3.a) del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

- e) Estatuaren kontrakoak, lan-legeriak erantzukizuna esleitzen dionean.
- f) Soldatak Bermatzeko Funtsaren kontrakoak, lan-legeriak erantzukizuna esleitzen dion kasuetan.
- g) Sindikatuak eratzeari eta haien nortasun juridikoa aitortzeari buruzkoak, eta orobat sindikatuen estatutuak eta haien aldaketak aurkaratzeari buruzkoak.
- h) Sindikatuen berariazko araubide juridikoa —hala legezkoa nola estatutuzkoa— gai dutenak, barne-funtzionamenduari eta kideekiko harremani dagokienez.
- i) Enpresaburu-elkarteak eratzeari eta haien nortasun juridikoa aitortzeari buruzkoak —1985eko abuztuaren 2ko 11/85 Askatasun Sindikalaren Lege Organikoaren xedapen derogatzaileak dioen moduan—, eta orobat elkarteon estatutuak eta haien aldaketak aurkaratzeari buruzkoak.
- j) Zuzenbidearen gizarte-arloko arau-hausteengatik sindikatuek eta enpresaburu-elkarteek duten erantzukizunari buruzkoak.
- k) Askatasun sindikaleko eskubideen babesari buruzkoak.
- l) Gatazka kolektiboari buruzko prozesuetakoak.
- m) Hitzarmen kolektiboak aurkaratzeari buruzkoak.
- n) Hauteskunde-gaiei buruzko prozesuetakoak, hauteskunde-aktak erregistratzeari ezezkua ematea barne, are prozesuak administrazio publikoen zerbitzuko enplegatuen ordezkaritza-organoetarako hauteskunderi buruzkoak diren kasuan.
- ñ) Lan elkartuko sozietate kooperatiboan nahiz lan-sozietate anonimoen eta haietako bazkide-langileen artean sortuak, langile izate hori dela eta.
- o) Enpresaburuen eta langileen artean sortuak, langileak lagatzeko kontratuaren ondorioz.
- p) Lege-mailako arau bidez esleituriko beste edozein gairen ingurukoak.

3. artikulua

1. Ez dira gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura:

- a) Askatasun sindikaleko eskubideen eta grebarako eskubidearen babesa, funtzionario publikoei dagokienez eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 1.3.a) artikuluan aipaturiko enplegatuei dagokienez.

b) De las resoluciones y actos dictados en materia de inscripción de empresas, formalización de la protección frente a riesgos profesionales, tarificación, cobertura de la prestación de incapacidad temporal, afiliación, alta, baja y variaciones de datos de trabajadores, así como en materia de liquidación y gestión recaudatoria y demás actos administrativos distintos de los de la gestión de prestaciones de la Seguridad Social.

Asimismo, quedan excluidas de su conocimiento las resoluciones en materia de gestión recaudatoria dictadas por su respectiva entidad gestora en el supuesto de cuotas de recaudación conjunta con las cuotas de Seguridad Social, así como las relativas a las actas de liquidación y de infracción.

c) De las pretensiones que versen sobre la impugnación de las disposiciones generales y actos de las Administraciones Públicas sujetos al Derecho Administrativo en materia laboral, salvo los que se expresan en el apartado siguiente.

d) De las pretensiones cuyo conocimiento y decisión esté reservado por la Ley Concursal a la jurisdicción exclusiva y excluyente del juez del concurso.

2. Los Órganos Jurisdiccionales del Orden Social conocerán de las pretensiones sobre:

a) Las resoluciones administrativas relativas a la imposición de cualesquiera sanciones por todo tipo de infracciones de orden social, con las excepciones previstas en la letra b) del apartado 1 de este artículo.

b) Las resoluciones administrativas relativas a regulación de empleo y actuación administrativa en materia de traslados colectivos.

3. En el plazo de nueve meses desde la entrada en vigor de esta Ley, el Gobierno remitirá a las Cortes Generales un Proyecto de Ley para incorporar a la Ley de Procedimiento Laboral las modalidades y especialidades procesales correspondientes a los supuestos del anterior número 2. Dicha Ley determinará la fecha de entrada en vigor de la atribución a la Jurisdicción del Orden Social de las materias comprendidas en el número 2 de este artículo.

CAPÍTULO II

De la competencia

Artículo 4

1. La competencia de los órganos jurisdiccionales del orden social se extenderá al conocimiento y decisión de las cuestiones previas y prejudiciales no perte-

b) Enpresen inskripzioari, lanbide-arriskuen kontrako babesa formalizatze-ari, tarifatzeari, aldi baterako ezintasunaren estaldurari, afiliatzeari, altari, bajari eta langileen datu-aldaketei buruzko ebazpen eta autoak, eta orobat Gizarte Segurantzaren prestazioen kudeaketaz bestelako administrazio-egintzei buruzko ebazpen eta autoak.

Ez dira haien ardura, era berean, Gizarte Segurantzako kuotekin batera biltzeko kuoten kasuan, dagokion entitate kudeatzaileak diru-bilketaren gaian emandako ebazpenak, eta likidazio eta arau-hauste aktei dagozkien ebazpenak.

c) Lan Arloko gaietan administrazio publikoek onartutako xedapen orokorrak eta administrazio-zuzenbideari atxikirik emandako egintzak aurkaratzearekin zerikusia duten uziak, hurrengo zerbakian adierazitakoak salbu.

d) Konkurtso Legeak konkurtsoko epailearen ardura eta erabaki esklusibo eta baztertzaila jotzen dituen uziak.

2. Gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura izango dira honako gai hauen inguruko uziak:

a) Gizarte-arloko edonolako arau-hausteengatik jarritako zehapen orenen inguruko administrazio-ebazpenak; salbuespen dira artikuluko honen 1. zerbakiko b) letran aurreikusiritakoak.

b) Enplegu-erregulazioari buruzko administrazio-ebazpenak, eta lantoki-aldatze kolektiboetan administrazioak izandako jokabideari buruzkoak.

3. Lege hau indarrean jarri eta bederatzi hilabeteko epean, Gobernuak Gorteetara igorriko du lege-proiektu bat, haren bidez gehitzeko Lan Arloko Prozeduraren Legeari aurreko 2. zerbakiko kasuei dagozkien prozesu-aldaerak eta -bereztasunak. Lege horrek zehaztuko du zer egunetatik aurrera esleituko zaizkion Gizarte Arloko Jurisdikzioari artikuluko honen 2. zerbakian sartutako gaiak.

II. KAPITULUA

Eskumena

4. artikulua

1. Gizarte-arloko jurisdikzio-organoei orobat izango dute eskumena arlo horretakoak ez diren baina arlo horri esleiturikoekin lotura zuzena duten aurre-

necientes a dicho orden, que estén directamente relacionadas con las atribuidas al mismo, salvo lo previsto en el apartado 3 de este artículo y en la Ley Concursal.

2. Las cuestiones previas y prejudiciales serán decididas en la resolución judicial que ponga fin al proceso. La decisión que se pronuncie no producirá efecto fuera del proceso en que se dicte.

3. Hasta que las resuelva el órgano judicial competente, las cuestiones prejudiciales penales suspenderán el plazo para adoptar la debida decisión sólo cuando se basen en falsedad documental y su solución sea de todo punto indispensable para dictarla.

4. La suspensión de la ejecución por existencia de una cuestión prejudicial penal sólo procederá si la falsedad documental en que se base se hubiere producido después de constituido el título ejecutivo y se limitará a las actuaciones ejecutivas condicionadas directamente por la resolución de aquélla.

Artículo 5

1. Si los órganos jurisdiccionales se estimaren incompetentes para conocer de la demanda por razón de la materia o de la función, acto seguido de su presentación dictarán auto declarándolo así y previniendo al demandante ante quién y cómo puede hacer uso de su derecho.

2. Igual declaración deberán hacer al dictar sentencia, si se estimasen incompetentes, absteniéndose de entrar en el conocimiento del fondo del asunto.

3. La declaración de oficio de la incompetencia en los casos de los dos párrafos anteriores requerirá previa audiencia de las partes y del Ministerio Fiscal en plazo común de tres días.

4. Contra el auto de declaración de incompetencia podrán ejercitarse los recursos previstos en la presente Ley.

Artículo 6

Los Juzgados de lo Social conocerán en única instancia de todos los procesos atribuidos al orden jurisdiccional social, salvo lo dispuesto en los artículos 7 y 8 de esta Ley y en la Ley Concursal.

Artículo 7

Las Salas de lo Social de los Tribunales Superiores de Justicia conocerán:

a) En única instancia de los procesos sobre las cuestiones a que se refieren los párrafos g), h), i), k), l) y m) del artículo 2 cuando extiendan sus efectos a

tiazko eta judizio aurreko arazoez arduratu eta haiek erabakitzeke, artikulua honen 3. zenbakian eta Konkurtso Legean aurreikusirikoa salbu.

2. Prozesua amaitzen duen ebatzen judizialean erabakiko dira aurretiazko eta judizio aurreko arazoak. Hartutako erabakiak ez du efekturik izango prozesu horretatik kanpo.

3. Judizio aurreko arazo penalek, organo judizial eskudunak haien gaineko ebazpena eman artean, kasu honetan bakarrik utziko dute geldieran dagokion erabakia hartzeko epea: agiri-faltsutasunean oinarrituak egonik, erabakia emateko guztiz ezinbestekoa denean haiek ebatzea.

4. Judizio aurreko arazo penal batengatik exekuzioa geldieran uztea bidezko izateko, exekuzio-titulua eratu ondorengo izan behar du hartarako oinarri den agiri-faltsutasunak, eta gai horren ebatzenak zuzenean baldintzaturiko exekuzio-jarduerak baino ez ditu ukituko erabakiak.

5. artikulua

1. Jurisdikzio-organoei, gaia edo beren funtzioa dela eta, irizten badiote ez dutela eskumenik demandaz arduratzeko, hala deklaratzeko dute auto batean, demanda jaso orduko, eta demandatzailea jakinaren gainean jarriko dute noren aurrean eta nola erabil dezakeen bere eskubidea.

2. Deklarazio bera egingo dute epaia ematean ere, eskumenik ez dutela irizten badiote, eta ez dira abiatuko auziaren edukia epaitzen.

3. Eskumenik eza ofizioz deklaratzeko, aurreko bi zenbakietako kasuetan, aurrez entzueran eman beharko zaie alderdiei eta Fiskaltzari, hiru egunen epe erdian.

4. Eskumenik eza deklaratzeko autoaren kontra, lege honetan aurreikusitako errekursoak baliatu ahal izango dira.

6. artikulua

Gizarte-arloko epaitegiak auzialdi bakarrean arduratuko dira gizarte-arloko jurisdikzioari esleitutako auzi guztiez, lege honen 7. eta 8. artikuluetan eta Konkurtso Legean xedaturikoa salbu.

7. artikulua

Justizia-azuzitegi nagusietako gizarte-arloko salen ardura izango dira:

a) Auzialdi bakarrean, 2. artikuluko g), h), i), k), l) eta m) letretan sartzen diren auzigaiei buruzko prozesuak, baldin eta haien efektuek hartzen duten

un ámbito territorial superior al de la circunscripción de un Juzgado de lo Social y no superior al de la Comunidad Autónoma, así como de todos aquellos que expresamente les atribuyan las leyes.

b) De los recursos de suplicación establecidos en esta Ley contra las resoluciones dictadas por los Juzgados de lo Social de su circunscripción.

c) De las cuestiones de competencia que se susciten entre los Juzgados de lo Social de su circunscripción.

Artículo 8

La Sala de lo Social de la Audiencia Nacional conocerá en única instancia de los procesos a que se refieren los párrafos g), h), i), k), l) y m) del artículo 2, cuando extiendan sus efectos a un ámbito territorial superior al de una Comunidad Autónoma.

Artículo 9

La Sala de lo Social del Tribunal Supremo conocerá:

a) De los recursos de casación establecidos en la Ley.

b) Del recurso de revisión contra sentencias firmes dictadas por los órganos jurisdiccionales del orden social.

c) De las cuestiones de competencia suscitadas entre órganos del orden jurisdiccional social que no tengan otro superior jerárquico común.

Artículo 10

La competencia de los Juzgados de lo Social se determinará de acuerdo con las siguientes reglas:

1. Con carácter general será Juzgado competente el del lugar de prestación de los servicios o el del domicilio del demandado, a elección del demandante.

Si los servicios se prestaran en lugares de distintas circunscripciones territoriales, el trabajador podrá elegir entre aquel de ellos en que tenga su domicilio, el del contrato, si hallándose en él el demandado pudiera ser citado, o el del domicilio del demandado.

En el caso de que sean varios los demandados, y se optare por el fuero del domicilio, el actor podrá elegir el de cualquiera de los demandados.

lurralde-esparrua gizarte-arloko epaitegi baten barrutia baino zabalagoa bada, autonomia-erkidegoa baino zabalagoa izan gabe; orobat, legeek espresuki esleitzen dizkieten prozesuak.

b) Beren barrutiko gizarte-arloko epaitegiek emandako ebazpenen kontra lege honetan ezarritako erregutze-errekurtsoak.

c) Beren barrutiko gizarte-arloko epaitegien artean sorturiko eskumen-arazoak.

8. artikulua

Auzitegi Nazionaleko Gizarte Arloko Sala auzialdi bakarrean arduratuko da 2. artikuluko g), h), i), k), l) eta m) letretako prozesuez, haien efektuek lurralde-esparru zabalagoa hartzen badute autonomia-erkidego bat baino.

9. artikulua

Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko Salaren ardura izango dira:

